

Olinpiada Txikiak hasi dira

Bukaera, datorren asteburuan ▶ 7



Finalistak baditu HITZA argazki lehiaketak

ZORTZI ▶ Aste Santuko oporretan atera, eta lehiaketara bidalitako guztien artetik zortzi sailkatu dira

GUSTUKOENA ▶ HITZAko irakurle eta harpidedunek aukeratu behar dute; lehen hirurentzat, sariak ▶ 4-5



Izaro Saizar musikaria. I. TERRADILLOS

BERASTEGI ▶

«Oso polita litzateke disko bat atera ahal izatea»

Laiotz taldeko kide da abeslari eta kitarrajole berastegierra ▶ 2-3




IRATXE ETXEBESTE

Gure Txokoaren 75. urteurren ekitaldiak

TOLOSA ▶ Elkartearen 75. urteurrena ari dira ospatzen Gure Txokoako bazkideak, eta askotariko ekitaldiei atzo eman zieten amaiera ▶ 6

bihar **HITZA**n
EAE-ko hauteskundeak
eskualdeko emaitzak herriz herri



UZTURRETIK ▶
AMAIA AGIRRE



Alderdien
alde
guztiak

Bidea zeharkatu aurretik behin eta berriz begiratu ezkerera eta eskuinera. Bi aldetatik etor daiteke zapalduko zaituen zerbait, norbait. Zernahi alderdira begiratuta ere, ordea, semaforoa gorri ikusten dut. Debekua somatzen dut. Arriskua begititzen dut.

Zoaz espaloiaeren ertzetik, bazterretik. Bazterrekoak beti baztertu egiten direla ohartu naiz gerora. Eskuinetik joan edo ezkerretik joan ez da gauza bera. Errepidearen nahiz amildegiaren orpo-orpotik joan zaitezke norabidearen eta bidearen arabera.

Eskuineko espaloira pasatzea gaizki ikusten dute oraindik askok eta askok. Sexu aukeraren errepidean kontrako norabidean joatea da. Isuna merezi duen jokabidea.

Bizitzan bide-gurutzea gurutz-bide bihurtzen da sarri. Hartzen duzun norabidearen isla baino ez da zure nortasuna. Hala epaitzen zaituzte behintzat.

Bidearen erditik joatea erabaki duenak ere oztopak baino ez ditu. Erdibidean geratzeko arriskua ezin du ekidin. Batera edo bestera egin behar da. Batetik edo bestetik. Orain arte zure esku izan dituzu aukera guztiak. Orain, ordea, ez. Semaforoa gorrian dago. Epaitzegetan ere gorritz jantzita dabilta. Semaforoko irudia ordezkatu dutela dirudi. Biderik gabe utzi nahi dituzte, espaloirik gabe. Bidegabekeria.

Beti aurrera begiratzeko esan digute. Atzera inoiz ez. Beti aurrera. Baina Artzek zioen moduan atzera ere begiratu beharra dago nondik gatozen jakiteko. Nondik gatozen jakin behar da non gauden eta nora goazen jakiteko.

Gaurko boto asko gidabaimenik gabe doan gidaria bezain ilegalak izango dira. Nik, hala ere, bihotza ezkerrean dut eta odola gorri. Bihotzak agintzen didana egingo dut.

KOMIKIA ▶ GORKA SALABERRIA



IZARO SAIZAR ▶ MUSIKARIA

«Musikari guztien ametsa disko bat egitea da eta hori lortzea oso polita litzateke»

Euskal Herriko Trikitixa Txapelketako txapelduna da, Nafarroako Kantu Txapelketako bigarrena eta egun Laiotz taldean dihardu herriz herri eta plazatik plazara

INIIGO TERRADILLOS

Izaro Saizar berastegiarrak txikitatik izan du musikarekiko zaletasuna. Bere etxean izan den afizio horrek berari ere eragin dio eta instrumentu mota ezberdinekin edo abeslari moduan hainbat sari irabaziak ditu musikari gazteak. Egundaino Laiotz taldean ari da plazatik plazara eta festaz festa herritarrek alaitzen.

Etxean txiki-txikitatik ikusi eta ikasi duzuna egin nahi izan duzu zuk ere.

Beti izan da zaletasuna etxean musikarekiko. Aitona, Tomas Arnal, Tolosako bandan ari da oraindik akordeoia jotzen. Aitaren partetik ere beti egon da musika giroa. Pentsa, haurtxo-

ak ginenean sehaskan lorik ezin hartu baginen Tapia eta Leturiaren trikitixa jartzen ginen eta berehala lokartzen ginen. Euskal musika, beraz, jaio ginenetik izan dugu present. **Noiz eta nola hasi zinen instrumentuekin probatzen?**

Trikitixaren boom-a izan zen 1998 urte inguruan. Alaitz eta Maider, Maixa eta Ixiar edo Goplazara eta festaz festa herritarrek alaitzen. Niri hau guztia asko gustatzen zitzaidanez, pandero bat oparitu zidaten gurasoek eta nire kabuz ikasten jardun nuen. Geroago kitarrarekin hasteko gogoia sartu zitzaidan. Ibartar batekin aritu nintzen lau urtez ikasten, lehendabizi

kitarra espainolarekin, eta, egun, akustikoarekin jotzen dut.

Ordura arte ikasitakoa erakustea erabaki zenuen orduan.

Trikitixa txapelketatan hasi nintzen, bai Euskal Herriko Txapelketan baita herrietakoetan ere. Horrela, 2003. urtean Urko Pontesta lasartearra bikote bezala nuela Euskal Herriko Txapelketan bigarren geratu ginen eta iaz Zeanurxin txapelketan geratu ginen.

Pozik lortutakoarekin, ezta? Oso pozik. Bai gu eta baita etxeakoak ere. Entsegu asko egin behar dira, uda osoko eguneroko lan handia dago horren guztiaren atzetik eta horrelako sari bat lortutakoan

egindako lanak merezi duela konturatzen zara.

Egun Laiotz taldeko kide zara. Nondik nora iritsi zitzaizun eskaintza?

Trikitixa Txapelketa irabazi ondoren, Nafarroako Kantu Txapelketaren berri izan nuen. 2004ko azaroan izan zen eta izena ematea pentsatu nuen. Maila handia zegoen, abeslari bikainekin topatu nintzen bertan. Lehenengo urtez aurkeztu direnentzat sari bereziak izan ohi dira eta lehenengo geratu nintzen. Eta, ondoren iritsi zitzaidan Laiotz taldearen eskaintza. Abeslari eta kitarrak jole baten beharra zutela azaldu zidaten eta proba batzuk egin nituen. Laiotz taldean ari naiz.

Laiotz-ekin eskaini zenuen lehenengo kontzertua non eta etxean, Berastegin. Zaila egin al zitzaizun?

Berastegino Gazte Festetan izan zen eta dena oso ondo irten zen. Oso gustura geratu ginen, bai gu eta baita herritarrek ere. Agian nahiagoko nuen beste herri batzuetan jo eta behin konfidantza hartu ondoren etxean jotzea, baina horrela suertatu zen. Hala ere, herrian ere aritu izan naiz abesten. Trikitixa txapelketa antolatu zen festetan; parte hartu eta bigarren geratu nintzen. Eta kitarrarekin ere jo eta abestu izan dut hainbat afaritan.

IRITZIA ▶ TOLOSA KUP-EKO ANTOLATZAILEAK

Futbola baino gehiago den txapelketa

Aurten ere Tolosa Kup txapelketa hastera doa. Lerro hauen bidez gure ustez txapelketa honen helburuak eta filosofia zeintzuk diren jakinarazteko aprobetxatu nahiko genuke.

Jakin badakigu gure eskualdean futbol txapelketa ezberdinak egiten direla urtean zehar. Horrelakoetan parte hartzen dutenentzat behar bada bitxia izan daiteke txapelketaren filosofiari hainbesteko garrantzia ematea. Azken finean, kasu gehienetan txapelketaren eta bertan jokatzen dutenen helburua kirol bat praktikatzeko da soilik, areto futbol, eta ahalik eta hobekien, gainera. Tolosa Kup-en ere kirol bat praktikatzeko da, baina kasu honetan areto futbol ez da azken helburua izango, bitarteko bat baizik.

Zein da orduan Tolosa Kup txapelketaren helburu nagusia? Herrian gazteok antolaturiko ekimen baten bidez, koadrilen arteko giroa suspertzeko eta gure aisialdian ondo pasatu ahal izateko aukera berriak sortzea, herriatik atera gabe. Hasi-eratik, hauek ziren txapelketaren aitzindariak lortu nahi zuten. Bi urte pasatu eta gero, koadrila honek helburu horiek modu paregabean bete dituela azpimarratu nahiko genuke. Beraz, lerro hauen bidez beraiek egindako lan bikainaren aipamen publikoa egin nahi dugu. Txapelketa hau zuei esker jaio zen, eta zuen lanari esker gaur egun bizi-bizirik jarraitzen duela esan dezakegu.

Orain arte egin diren bi edizioetan argi ikusi eta bizi izan dugu herriko gazteok nola hobetu den asteburuetako giroa txapelketari esker. Horrela, larunbat arratsaldeak partiduak jokatuz edo jokalariei animatuz igaro zitezkeen eta behin baino gehiagotan partiduak Santa Luziako kiroldegiañ hasi eta tabernetan amaitzen ziren. Era berean, Tolosa-Ibarra norgehiagoka, lehiakortasunetik haratago, bi herrietako gazteen arteko egunpasa perfektua bilakatu zen, nahiz eta eguraldia gure alde ez egon. Argi gelditu da, beraz, gazteok merezi dugun ekimenak antolatzeke gai garena, bai gure onerako eta baita herriaren mesederako ere.

Txapelketaren abantaila hauek guztiak ikusita, proiektu honen ildo ez galtzea beharrezkoa dela deritzogu. Horregatik, modu apalean, ideia sortu zutenen lekukoa hartzen saiatuko gara aurtun. Horrekin ez dugu esan nahi antolaketa-*pisu* guztia guregan geldituko denik, ezta guxtiagorik ere, baizik eta ekimen honen jarraipena ziurtatzeko, koadrila guztien laguntza ezinbestekoa dela. Filosofia honekin ados zaudetenak bat baino gehiago zaretelakoan, aurtengo edizioan ahalik eta inplikazio handienarekin parte hartzea gonbidatzen zaituztegu. Aldez aurretik gure esker ona adierazten dizuegu, denon artean txapelketa bikaina antolatzea posible dela badakigulako.



Akordeoi topaketa ederra

ASTEKO IRUDIA ▶ Joan zen igandean Euskal Herriko III. Akordeoi Topaketa egin zuten Tolosan. 350 akordeoijole, 300 abeslari, perkusiojoleak, erraldoiak eta dantzariak elkartu ziren Beotibar frontoiko jaialdian, herrian zehar kalejira egin ondoren. Musika festa ederra antolatu zuten Udala Musika Eskolak, Hauspoz elkarteak eta Udalak. HITZA



PERTSONALKI ▶

▶ Berastegin jaioa ▶ 1985eko apirilaren 14an ▶ Magisteritzako ikasketak ari da burutzen ▶ Euskal Herriko Trikitixa Txapelketako txapelduna da ▶ Egun, Laiotz taldean dihardu ▶

Musika instrumentu bat? Trikitixa asko gustatzen zait, baina kitarrarekin geratzen naiz. **Denbora librean zer egitea gustatzen zaitzu?** Lagunekin egotea gustatzen zait eta beraiekin parrandatxoak egitea, irratia entzutea atsegin dut eta zinemara joatea.

TRIKITIXA

«Haurtxoa nintzela, eta sehaskan lorik ezin hartu banengoen, aita trikitixa jartzen zidan eta lo hartzen nuen segituan»



Zer nahiago duzu: kitarra edo trikitixa?

Bi estilo guztiz desberdinak dira. Agian kitarrarekin gehiago erakutsi dezakezu zenbateraino gai zaren.

Etorkizuna musikarekin lotuta ikusten al duzu?

Momentuz, oso gustura ari naiz Laiotz taldearekin. Kristoren giroa dago taldean, oso ondo konpontzen baikara elkarrekin. Hasi besterik ez naiz egin, beraz, ikusi beharko da nola egiten duan aurrera. Nire ametsa eta nahia abesten jarraitzea da.

Zaila da musikarekin bizi ahal izatea.

Mundu honetan musikarekin bizi ahal izatea oso zaila da. Kantari guztien ametsa disko bat egitea da eta hori lortzea oso polita litzateke. Urte askotan abesten jarraitzea da esperor dudana.

Bestalde, Gasteizen magisteritza ari zara ikasten. Errazagoa ikusten duzu, agian, bide horretatik bizitzea.

Bigarren maila ari naiz ikasten. Datorren urtean karrera bukatu eta ikasten jarraitzeko asmoa dut, magisteritzan oso zaila baita lana aurkitzea. Irakasle izatea gustuko dut, eta lana ez da batere txarra, baina aurkitu arte gogor egin behar da lan.

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

Finalera heldu diren zortziak

HITZA argazki lehiaketako zortzi finalistak dira hauek; orain harpidedunei eta irakurleei dagokizue gustukoena hautatzea; parte hartzen duzuen guztien artean sudadera bat zozketatuko dugu



1 Maidor Muñagorri (Tolosa). Donostia atera zuen argazki hau Maidor Muñagorri marboaren 26an, larunbatarekin. Bertatik bertara gai hartuta atera ere, Halaen Orazia esaten zaion lekuan. Olatuek inguru horretan leheritzean sortzen duten irudi polita eskainiz hartu du parte tolosar honek Hitza argazki lehiaketan.

2 Xabier Eneaola (Tolosa). Aste Santuko ospontean urrutira joan beharrik ez dagoela erakusten duen argazkia da beste hau ere. Ez, behintzat, argazki politik aleratzeko bada. Hemenin, Tolida-Lekuko baserri dotorea izena jarri dio Xabier Eneaolak irudiari, eta baserria are dotoreago egiten du aurrealdean ageri den loreko arrunt horrek.

50 IBILBIDE
FAMILIA ETA LAGUN ARTEAN

Apirilaren 24tik aurrera
 egunero ibilbide bat **DOAN BERRI**arekin

Leuzak

Eskildunek leher dugu
berria

IRATXE ETXEBESTE

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitzak antolatutako argazki lehiaketa azkenetan da. Aste Santuko osporria da gai hartuta, asko eta asko izan diren batean eta bestean ateratako irudiak lehiaketara aurkeztu dituztenak, eta horien guztien artean zortzi aukeratu ditu epaimahaia finalerako. Bi orrialdeotan dituzte hitzako harpidedunek eta irakurleek bidaltzeko argazkien artean aukeratu behar dituztenak. Bada hemendik aurrera zuek izango zarete zortzi argazkien artean hoberean hautatuko aukera izango duzue. Hitza zerbaki banarekin zentzatu dituzte zortzi irudiak, eta zerbaki horiek erreferentzi hartuta, gustukoena aukeratu beharko duzue orain. Alegia, aurrezartzean gure irakurleek beteko dute epaimahaia lana, eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitzak eskaintzen dituen hitza sariak norentzat izango diren haiek erabakiko dute, hortaz, bakoitzak gustukoena duen argazkia —bat bakarra— aukeratu beharko du, eta bere erabakia HITZARI jakinarazi. Bi bide dituzue horretarako: posta elektronikoa eta telefonoa. Hartu parte, botoa ematen duen guztien artean sudadera bat zozketatuko baina hitzak.

XEHETASUNAK ▶

SARIAK

- ▶ **1. saria.** Bi laguntzako afari eder bat Berrobiko Iriarte jatebetean.
- ▶ **2. saria.** Bi laguntzako afari eder bat Adunako Zabala sagardotegian.
- ▶ **3. saria.** Mahala baserriko produktu naturalen sorta aparta.

IRABAZLEEN HAUTAKETA

Botoa nola eman. Hitzako harpidedunek eta irakurleek posta elektronikoki bidez edo telefonoz dute botoa emateko aukera.

Lehiaketarako dela zehaztu eta zuen ustez argazki onena denari dagokien zerbaki argi azaldu eta harremanetan jartzeko datuak (izena, telefonoa, NAN...) jarrita, tolosaldeen@tolosaldeko-hitza.info helbidera bidali.

Hitzako egotzara deituta: 943 65 56 95.

Araua. Harpidedun edo irakurle bakoitzak behin baino ezinago du botoa eman. Zuen datuak argi zehatu, beraz, **Saria.** Argazki lehiaketan botoa ematen duen guztien artean Hitzako sudadera bat zozketatuko dugu.




3 Dani Lanzeta (Tolosa). Granadan atera zuen. Sua zeruan izena jarri duen argazkia. «Sorginkeria bereziko kurralde hau ilunabarrek besarkatzen, magia eztanda batean bilakatzen da ia egunero.»



4 Josu Gonzalez (Tolosa). Donostiako Korbua pasalekuak ederra da izatez, eta gisa honetako argazkiekin lurragarri bilakatu da. Beste askok bezala, eguzkia sartzen ari denean egin du Josu Gonzalezek.



5 Aitor Tejeria (Tolosa). Aste Santuan Mallorca aldean ibili omen da Aitor Tejeria, eta, besteak beste, gizon honen irudia harrapatu nahi izan du. Puntua erretzen ari denak finalera heldu dela jakingo balu!



6 Leire Arressegir (Ametzeta). Arabako Garaion (Urbiain-Garinoa urtegia) ateratakoa da argazki hau, eta «iluntze zoragarri bat ikusiko aukera izan genuen», du Leire Arressegir ametzetarak. Euzkai Herria ez dira ilunabarrek, paraje politik, itxasaldeak falka. Ezagutzen duzue Arabako inguru hau?



7 Mireia Abaigar (Tolosa). Sondenborg deltatuko Danimarkako herria ateratakoa da argazkia. «Mendi gutxi dago herrialde horretan; altxanak 170 metroko gariera besterik ez du. Baina horren ondorian, eguzkia jartzen denean honelako argazkiak atera ditezke, eguzkiak jarraitzen duen bidea ikusten baita.»



8 Ramon Garmendia (Barra). Mendia maila du ibarfar honek, argi dago honi. Eta Udaltzai aldera joan zen egun batean, honako argazkia atera zuen. Umetra behera, eta Aletoko mendia ikusten da, lane artean harrapatuta, eta behelanoaren azpialdean Gipuzkoako Arrasate herria dago. Imaginatu egin behar!

La Salle Berrozpe ikastetxea
 La Salle etorbidea, 5
 www.lasalleberrozpe.com

ATEAK ZABALIK **MATRIKULAZIOAK**

Informazio gehiago: 943 590 557

Esantza: 2009ko apirilaren 20a
 Ordutia: 18:00
 Lekuak: La Salle Berrozpe ikastetxean

Zatoz gure Batxilergoak eta Heziketa Zikloak ezagutzera

TOLOSA ▶ GURE TXOKOA ELKARTEAREN 75. URTEURRENA

IRATXE ETXEBESTE

Gure Txokoako elkartearen 75. urteurrena ari dira ospatzen egunotan, eta askotariko ekitaldiak izan dituzte asteazken zehar. Elkartearen liburua aurkeztu zuten, esaterako, ostiralean: Gure Txokoa sortu zenetik gaurdainokoa agertzen dituen dokumentuan argazki zaharrak, bateko eta besteko ekimenak, Inauterietako gorabeherak... biltzen dira. Pako Arratibel izan da liburu horren egilea, eta harekin batera jardun zuten aurkezpen ekitaldian bere seme Iñaki Arratibelek, Mitxel Ezkiaga kazetariak, Olatz Peon udal zinegotziak eta Iñaki Garmendia elkartearen presidentea. Jende asko izan zen liburu aurkezpena bildutakoa: 100 lagun inguru.

Elkartearen egun handia, baina, atzo ospatu zuten bazkideek. Goizean bazkide zenden aldeko meza izan zuten Jesusen Zerbitzarietan, eta elkartearen abesbatzako kideek bertan jardun zuten, gainerako bazkideen gozamenarako. Ondoren hamaiketako egin zuten elkartearen, bazkideetako batzuk prestatutakoak dastatzeko. Gauean aforatara joatekoak ziren Gure Txokoa elkartearen bazkideak eta haiek propio urtemuga ekitaldira gonbidatutakoak; antolatzaileen esanetan, Frontonen egina zuten hitzordua iluntzerako.

Horiek, eta asteazkenean Garikoitz Mendizabal eta Aitor Arozena txistulariek eskainitako kontzertua izan dira Gure Txokoa elkartearen urteurrena ospatzeko egin dituzten ekitaldi nagusiak. «Bikaina izan zen txistu kontzertua! Gure Txokoa elkartearen gainezka zela, eszenatoki aiposean ederki asmatu zuten txistulariek». Tolosako elkarte zaharretakoa dena-

Gure Txokoa omendu nahi, eta liburua atera dute elkartearen kideek

Elkartearen Eguna ospatu zuten atzo bazkideek; jai giroan egin dituzte 75. urteurrena ospatzeko antolatutako ekintzak



Pako Arratibel liburuaren egilearekin batera, haren seme Iñaki Arratibel, Mitxel Ezkiaga kazetaria, Olatz Peon udal zinegotzia eta Iñaki Garmendia elkartearen presidentea izan ziren aurkezpen ekitaldian. A. ELDUAIEN



Mendizabal eta Arozena (ezker-eskuin) txistulariek jardun zuten ostiralean Gure Txokoa. AITOR ELDUAIEN



Hamaiketako egin zuten atzo hildako bazkideen aldeko mezaren ostean elkartearen. IRATXE ETXEBESTE

ren 75. urteurren ospakizun sortari hasiera emateko kalitate handiko ekitaldia eskaini zuten, hara joandakoek esan dutenez. Bertaratutakoaren artean

ziren, besteak beste, Jokin Beldarratz Tolosako alkatea eta Iurre Peñagarikano eta Angel Yanez udal zinegotziak, Juan Garmendia Larrañaga histo-

rialaria, Miguel Soroa pilotari txapeldun ohia eta Iñaki Letamendia Udal Txistulari Bandako zuzendaria. 100 bat lagun izan ziren kontzertuan ere.

LEITZA ▶ PILOTA

Abel Barriolak bihar Tolosan ez jokatzera erabaki du azkenean

Liga Profesionaleko batzordeak beregain utzi zuen erabakia; jokatzeko moduan ez ei dago

I. ETXEBESTE

Abel Barriolak ez du azkenean bihar Tolosako Beotibar pilotalekuan Gonzalezen aurkako neurketa jokatzeko. Horixe erabaki zuen atzo Leitzako pilotariak, norgehiagoka jokatzeko moduan ez dagoela argudiatuta. Aste honetan egin dioten

erresonantzia-magnetikoa ikusi denez, orkatilan ez du inolako hausturarik baina pilotaria min hartuta dago oraindik. Liga Profesionaleko kirol batzordeak baimena eman zion bihar jokatzeko, eta berak hartu behar zuen erabakia. Bada leitzararren azken erabakia ez jokatzera izan da.

TOLOSA ▶

Eguraldi txarra eta eskaintza zabala atzoko azoka gunean

Barazkien postuetan, adibidez, tipulinak, baratzuri freskoak eta zainzuriak izan ziren

PABLO ALBERDI

Ez zuen atzokoan eguraldiak gehiegi lagundu. Hala ere, eskaintza zabala izan zen benetan. Joan den asteetako produktuez gain, berrikuntzak ere izan ziren, datarren asteko garrantzia handikoak.

Barazkien postuetan, adibidez, tipulinak, baratzuri freskoak eta zainzuriak ziren. Berdura plazan apaingarri landareen eskaintza mantendu egin zen, datorren aste azoka bereziaren zain. Ordurako produktu berri asko izango dituzte prest saltzaileek, eta eskaintza izugarri handituko da ziurrenik.

ATZOKO AZOKA ▶

Berdura plaza	merk.	gares.
Baso espezieak		
Abeto Douglas	0,33	-
Lawsoniana	0,33	-
Landareak		
Konifera	6,00	-
Erromeroa	4,00	6,00
Dhalia	2,30	-

Bertako produktuak

Abereak		
Ahatea	2,50	-
Antzarrara	11,00	12,00
Barazkiak		
Tolosako babarruna	8,00	12,00
Tomatea	3,00	4,50
Kalabaza	1,50	3,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,00	4,00
Besteak		
Madalenak	3,60	-
Ogi biologikoa	1,77	-
Arraultzak	1,30	2,10

Produktu biologikoak

Fruta		
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Barazkiak		
Zerba	2,00	-
Kalabaza	1,60	3,04
Dilistak	2,40	-

bibitegia
Lardi auzoa, Zubi txiki industr.
20150 ADUNA
Tel. 943 69 68 64
Faxa: 943 69 68 47

Zumeta

BEGIRISTAIN
Iñaki Sagarrietxe
tel.: 943 65 28 37 / 607 36 57 43 • Iturriotz baserria 20267 Ikaztegieta

- Afariak: asteleheneetik larunbatera
- Bazkariak: osteguna, ostirala eta larunbata

SALTZAILEA
behar da jornada erdira umeen arropa dendarako
Euskara dakiena.
Kurrikulum-a bidali argazkiarekin
Gudari 8, 5. ezka • TOLOSA

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Jokoan abil

Udaberriko jokoan sari banaketa Harizpen

IMANOL GARCIA

Udaberriko Joko Txapelketako —Jose Manuel Gorostiaga IV. Memoriala— sari banaketa egin zuten atzo eguerdian Harizpe jubilatuen egoitzan. Elkarteko kideen artean mahai jokoan txapelketa egin dute azken asteotan, eta atzo goizean jokatu zuten tokakoa. Harizpe egoitzaren teilatuan daukate prestatuta tokan aritzeko eta bertan aritu ziren euriari eta haizeari aurre eginez.

Sari banaketan lehenengoari garaikurra eta kafe paketea

eman zieten. Azpitxapeladunek garaikurra jaso zuten. Hirugarrenek eta laugarrenek xanpain boteila eta zainzuri lata. Txapelketetan aritu diren 58 parte-hartzaileek jaso zuten oparitxo bat. Bukaeran salda eta pintxoak banatu zituzten.

Tuteko txapeldun bikotea Angel Izagirre eta Gonzalo Campo izan ziren eta bigarren Juan Arrospide eta Juan Jose Isasti. Puntuatu, txapeldunak Agustin eta Jose Zubeldia izan ziren; ondoren Josetxo Telleria eta Maria Teresa Arana sailkatu ziren. Dominokoan txapel-



Jokoetako txapeldunak, beren sariekin. IMANOL GARCIA

dunak Jose Céspedes eta Agustin Diaz eta azpitxapeladun, Jose Mari Contreas eta Cesar Gonzalez. Museko jokoan, berriz, Josetxo Telleria eta Elias Del Villar izan ziren txapel-

dunak eta Angel Izagirre eta Gonzalo Campo bigarren. Azkenik, tokako txapelketan Angel Brillo izan zen lehena eta bigarren Wenceslao Jimenez sailkatu zen.

IBARRA ▶ GIZARTEA

XII. Olinpiada Txikiari eman zaio hasiera

Gaur toka eta bolo probak izango dira ikusgai Emeterio Arrese parkean

IÑIGO TERRADILLOS

Hauspo kultur elkarteak antolatuta atzo eman zitzaion hasiera Ibarra XII. Olinpiada Txikiari. Atzokoan karta jokoak izan ziren nagusi, mus-a eta eskoba, hain zuzen ere.

Aurtengo olinpiadetan 13 taldek eman dute izena: Balan-txaka, Xepla A eta B, Sendi-Ekintza A eta B, I. K. E. A eta B, Uzturpe Ikastola A, B eta D, Gazte Asanblada, Merkatarien Elkartea eta Bizi-Nahi jubilatuen elkarteak.

Antolatzaileek azaldu bezala, ekitaldi hauen helburua herritarrek biltzea eta ongi pasatzea da. Elkarte eta talde guz-

tiak euren bidetik ibiltzeko joera dago, eta hori apurtuaz, denak batera, adin ezberdinetako jendeak elkarrekin ekitaldiak eginez ederki igaro dezaketela frogatzeaz gain, lagunarteko giroa sortu eta herritarren arteko harremana sendotu nahi dute.

Xepla elkartean eta I.K.E. an zen atzokoan hitzordua, kartak prest baitzeuden bertan musean eta eskoban lehiatzeko. Taldeka banatu eta partida gehien irabazi zituenak batu zituzten sailkapen orokorrerako puntuak. Horrela, bi asteburuetan zehar burutuko dituzten probetan puntu gehien baten dituenak irabaziko du.



Xepla elkartean eskoba jokoan aritu ziren atzo. I.TERRADILLOS

Gaur, 11:30ean Emeterio Arrese parkean bilduko dira parte hartzen ari diren taldeak eta elkarteak. Bertan tokan eta boloetan ariko dira.

Datorren asteburuan, berriz, askotariko jokoak egingo di-

tuzte. Ardo dastaketa ere egingo dute; proba horretan, edandako edaria zein motatakoa den asmatuko beharko dute. Ibilaldi neurtua, sukaldaritza lehiaketa eta bazkaria izango dira azken ekitaldiak.

iragarki laburrak ▶

Laguntzaile administratiboak.

Leku libreak: Hernani, Usurbil, Beasain, Altzo, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informatu: 943 43 41 27.

Haur Hezkuntza. Gaztelarako 106 leku, euskarako 52. Doako informazioa. 943 43 41 27.

Fisioterapeutak. Laboratorioa, argi-

izpi teknikoak, erizain laguntzaileak. Hurrena sartzeko: osasunbidea, erakunde publikoak. Informatu: 943 43 41 27.

Sukaldeko laguntzaileak, sukaldariak, tabernariak. Leku libreak: ikastetxeak, erresidentziak, Eusko Jaurilaritza. Informatu: 943 43 41 27.

Peoiak. Igeltseroak, soldadoreak, mantenenmendua. Leku libreak: Hernani, Arrasate, Arama, Errenteria, Antzuola, Zerain, Mendaro, Villabona. Informatu: 943 43 41 27.

Gidariak. Hurrena sartzeko: udalbatuek, Eusko Jaurilaritza, Foru Aldundia. Doako informazioa. Informatu: 943 43 41 27.

Irakasleak. 465 leku libre. Hurrengo deialdiak. Informazioa doan. Informatu: 943 43 41 27.

Udaltzainak. 25 leku libre udalbatuek: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Irun, Arrasate. Informazioa doan. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 43 41 27.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarralde. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroizko dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aitzondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aitzondo zerb.: 943 69

39 30.

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Morant, R. Zabalarreta 1 (Tolosa). 943 67 38 49.

Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aitzondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Alegiako taberna batean zerbitzari bat behar dugu arratsaldetan aritzeko. Deitu: 649 51 34 87.

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Zizurkil. *Xomorroak.* Bihar, 15:30ean, Atxulondo kultur etxean. III. Antzerki Astean.

DEIALDIAK

Tolosa. 1969an Bulnesko Naranjo eskalatzen hil ziren Ramon Ortiz eta Patxi Berrioren omenaldia egingo die Oargi mendi elkarteak: 11:00etan meza izaskunen, 13:00etan buzoi berriaren inaugurazioa. Uzturren, eta ondoren bazkaria.

Tolosa. Tolosa Kup-en izena emateko azken eguna, tolosakup@hotmail.com helbide elektronikoan.

Tolosa. Odol-ematea. Bihar, 18:30etik 20:30era, Kultur Etxean.

ERAKUSKETA

Alegia. Luis Maria Nuñezeko koadroak, jubilatuen tabernan.

Belauntza. *Ahaggar,* liñaki Edrosoren Aljeriako basamortuko argazkiak. Bihar arte, Kultur Etxean.

Belauntza. Mikel Azpillagaren pinturak. Hilaren 23a arte, Aranburu Jauregian.

Tolosa. Jose Antonio Gorgojoren pinturak, Sorron enmarkazio dendan.

Tolosa. Ana Jesus Ansorenaren zeramikak, Saikin tabernan.

ZINEMA

Leizta. *Whisky.* 19:30ean, zineman.

Tolosa. *Million dollar baby.* 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren. Bihar eta etzi (Ikuslearen Eguna), 19:30ean eta 22:30ean.

Tolosa. *Di que si.* 19:00etan, Bonbereneako zine-klubean.

«Groau!» esaten zuen katua

TOLOSA ▶ Besteen ezberdina den katakume baten istorioaz gozatu zuten atzo Leidorrrera joan zirenek; Hika Teatroak taularatu zuen 'Groau!' antzezlan



Niko Lizeagak antzeztan duen katu familiako izeba, bere ilobei musika klasea ematen. I. GARCIA



Ama eta izeba solasean, Mitxi nola «zuzendu» jakin ezinik. I. GARCIA



Mitxi, urdaiazpiko pusketa baten usain erakargarriari ezin eutsirik. i.g.

IMANOL GARCIA

Hika Teatroak atzo eskaini zuen *Groau!* haurrentzako antzezlan Leidorren. 150 bat ikusle izan ziren aretoan. Haurrak, eta noski, gurasoak ere, izan ziren katu familia baten istorioei adi-adi jarraitu ziotenak.

Ez zuten Leidorrrera joan zirenek hainbeste «miau» entzungo hain denbora gutxian. Katu txikiak, baina, Mitxi izenekoak, «groau» esaten zuen eta bere ahizpa Matxusen irainak jasotzen zituen katu baten «desegokia» zen oihua egiteagatik. Mitxi katakume honen bizipenak eta sentimenduak kontatzen zituen Hika Teatroren antzezlanak, musika- eta kantuen laguntzaz.

Belen Cruz, Miren Gojenola eta Niko Lizeaga dira katu familiari bizia ematen dioten aktoreak. Atrazko eta jantzi xaloe-kin efektu eraginkorra sortzen dute eszenatoki gainean, beren ahotsak katuen tonofin eta malenkoniatsura ezin hobeto moldatuz.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Miriam Uzquidun Lazkano (12askun). Gaur 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama, amona eta Alaitzen partetik.



URTE ASKOAN

Janire Errazkin (Ibarra). Zorionak ebeko gutzien eta, batez ere, Haritzen partetik.



ZORIONAK

Jon Ander Lezeta (Ibarra). Gaur 9 urte. Zorionak aita, ama eta Leireren partetik. Muxu asko.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!